

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

**GREZIA-ERROMAKO (IDAZLE KLASIKOEN  
LANAK LATIN EDO GREKO-EUSKARAZ  
ARGITARATZEAREN GARRANTZIAZ)**

Jon Gotzon Etxebarria Martin

**(Separata)**

1991, 2  
36. liburukia (2. aldia)  
BILBO

## GREZIA-ERROMAKO

(idazle klasikoen lanak latin edo greko-euskaraz argitaratzearen garrantziaz)

*Gure agintari akademikoek eta politikoez lagundurik, lan hau aurrera eramateko sujerentzi batzu, handi-handika.*

### GERNIKAKO EUSKAL JAIEN MENDEURRENEAN EUSKAL ESTILISTIKAZKO IHARDUNALDIETAN

*Jon Gotzon Etxebarria Martin*

Ongi etorriak zaitzela, euskaltzale lagunok:

Beharbada, berbaldi honen titulua irakurri edo entzun ondoren, batek baino gehiagok esango du berekiko: 21. gizaldiko ateetan, teknikan, teknologian eta abarretan hain aurreraturik gauden garai hontan, atzera egin behar al dugu antxinako gizaldietara laguntza eske? Gure hizkuntza aurrera ateratzeko ez al dago bide hobeagorik eta probetxuzkoagorik, gure egunetako preminei begira gure gazteei tresna egokia eskaintzeko? Ez ote euskararen kaltetan indarrak horrela banatzea?

Aurrera baino lehen, esan dezagun modernitate eta modernizazioaren guztiz alde gaudela; ez ditugula ukatzen gure hizkuntzak behar dituen guztitariko osabideak, ez horixe! Baina, horrexegatik, guztitariko laguntzak behar dituelako, hauxe ere bai eman nahi diogu: Grezia-Erromako kultura klasikoak ekar diezaiokeen aberastasuna, edertasuna eta indarra.

Beraz, hau hori eta bestea...

Behin tresna modernoak eskuratzeko dugun premina aitortuz gero, zer probetxu edo mesede ekarriko digun antzinako klasikoa, grekoz eta latinez idatzitakoak, euskarara itzultzeak erakutsi beharrean gaude.



Guk ikusten ditugun alderdi onak azaltzen hasi baino lehenago, urratzen dugun bideak helburu ziurrera eramango gaituela antz emateko, bota dezagun begirada zabal bat inguruko herririk aurreratuenetara, eta teknikarekin eta teknologiarekin batera klasikoak ez dituztela bazterturik ohartuko gara. Zerbaitegatik izango da: Frantzia, Ingalaterran, Alemanian eta Italian, hurbilenak soilik aipatzeko, tresneria modernoarekin batera klasikoen argitalpen ugariak ikus ditzakegu. Edizio kritikoak, espezialistek eginak, egonarriz eta zehaztasuna osotua: itzulpen bikainak, sarrera aberatsak eta oharkizun jakingarriak. Liburu mardul eta txukunak, bilduma atsegingarriak eta kilikagarriak. Eta kasu batzutan, diru-laguntza bereziei esker, edonork erraz esokuratzeko modukoak, prezio onean erosleei eskainiak. Pasaporteak kadukata baduzue, ez estutu: katalanek ere lan ederra erakutsiko digute arlo horretan; oso gertuan dugu eredu nahi izanez gero.

Zerbaitegatik izango da. Eta gure Europa zaharreko herri-agintariak ere, teknologiko alorreran indartsuen konpetentziari aurre egiteko orduan elkartu eta ikertu beharra somatu dutenean, nora eta Greziara joan zaizkigu argi bila, ahaleginak bateratzeko eta bideratzeko; eta horra non mamitu duten denen artean, gerorako proiektu handi-sakona: *Eureka*.

Badirudi ez gabiltzala bidean galdurik; hori erakusten saiatuko gara hurrengo lerroen bidez. Eta gure hizkuntzaren bizitzarako, une bateko *eureka* bihotz pozgarriari jarrai dakiola betiereko *nenikamen* gogo-betegarria.

Egunero, gure azaletarako bizitzan ahanzten badugu ere, Grezia eta Erromako semeak gara kulturaren europarrak, eta euskaldunok, ere europartzat aitortu behar gure buruak.

Edozein jakintza arlotan: filosofian, teologian, literaturan, teknikan eta pentsamenduan greziakumeak gara lau aldeetatik. Gure egunetako aurrerapenadarrak eta hostoak alde batera zein bestera hedatu, ezin dugu zirkinik ere egin sendoro lotzen gaituzten sustraietatik: Grezian eta Erroman diugu sustrai-hariak, aldaezinak.

Antzinate zaharrean ez ezik, hurbilago ditugun aroetan ere bai ikusiko dugu sortzen direla ugari haiengandiko fruituak; pentsamenaduz eta hizkuntzaz; gogoratu zenbat idatzi den oraintsu arte European latinez: geografian, zuzenbidean, historian, teologian eta abarretan; eta hain berandu arte grekoz idatzi ez bada ere, grekoen pentsamoldeak eta adimenak eratu du gure filosofi eta jakintza-bidea.

Gure herrien historia ulertzeko Erromara jo beharko dugu askotan argitasun eske; eta gure pentsamoldearen mundua ulertzeko gai izango bagara, Greziaraino hurbildu beharko gara, gure iturriak eta bazkalekua aurkitu arte. Gure nortasuna argitzekotan, Grezian eta Erroman buru-belarri sakondu beharrean aurkitzen gara, ezinbestean.

Eta mundu guzti hori ongi ulertzeko eta ikusteko zenbat eta iturrietara gehiago hurrabildu, hobekiago eta zehatzago ikasiko dugu gure barne eta inguru giroaren berri.

Antzinako klasikoek zuzenki edo zeharka izan duten eragina mila lekutan eta gauzatan somatuko dugu bizi-bizirik.

Baina gure buruak ulertzeko bakarrik ez; guretzako eredugarri izan ditezkeen autoreak ere aurkituko ditugu, literaturan, filosofian eta jakintza arloan. Gaurko joera askotarikoak alde batera utzi gabe, estilo bat bilatu orduan grekoz eta latinez idatzi zuten autorak ezin baztertuzkoak zaizkigu. Adimen eta gogo-gauzetan sakontzeko ere berebizikoak gertatzen zaizkigu gure arbaso klasikoak: giza gogo sakonki eta giza adimena argi ezagutzeko ezinbestezko laguntza ditukegu klasikoak.

Are gehiago: dakiguna, handik edo hemendik aterea bada ere, disziplina baten antzez eta onuraz argitara emateko ere klasikoek eredu eta jakingarri bikaina eskainiko digute. Esana du filosofo espainol batek, saiolari frantsesek hobeki dakitela espainolek baino, bere ikusmoldeak azaltzen. Zergatik? Eta klasikoen ezagutza hobeagoa dutelako.

Gure artean klasikoenganako joera eta zaletasuna ez da gaurkoa; guztiz antzinakoa baizik.

Aita Bidegaray lehenengo eta Sara-ko Etxeberri ondoren, euskal gazteriarri latina irakasteko bideetan eta nekeetan abiatu ziren, gure gazteek Euskal Herritik ilki gabe latin ikas zezaten. Mogeldarren artean bazen zaletasuna Esopo eta Phedro euskaraz jazten. Eta gure egunetan Zaitegi bikainki aritu izan da Platon eta abar grekotik euskarara zuzen itzultzen.

Itxura batean, alferreko ahaleginak denak. Bidegaray eta Sarakoak ez zuten lortu diru-laguntzarik. Eta Zaitegi-ren lana, eskerga, esker gabe geratu da, abertzale amorratuen herri kontan. Batean euskaraztu digu jakitun batek Platon irakaslea eta ez da egon dirurik edizioa grekoz eta euskaraz egiteko. Lotsaz ibiltzen naiz ni hortaz galdetzen didatenean. Aberriaren alde odola emateko prest dagoen herrian eta diru apur bat gastatzeko akiakulutan dabilen herri konetan, egia esan, ez dakit nola jokatu; azkenean gure herrian harro ez, arrotz sentitzen naiz, benetan.

Hainbeste sukalki eta gastronomia, bazterretan... azkenean, gitxienez, xefalopodoak bilakatuko bagina; baina beldur naiz gasteropodo hutsak izango ote garen.

Prest gaude, hala ere, batzu berriro aheleginetan hasteko. Baina gaurko gizartearen, eta honelako lan sakon batean areago, gizabanakoen indarra ez da nahikoa; Erakunde politikoen eta kulturalen laguntza eta arnasa ere preminazkoak dira lan guzti hau aurrera eramateko.



Badakigu ezin dela egin dena batera eta goizetik gauera. Horregatik, goazen gure planak eta asmoak apurka apurka azaltzera. Guk ez dugu ihardungo gure gazteak Euskal Herritik irten gabe klasikoen kulturaz jabetu daitezen; Europara eta mundura klasikoen aberastasunak eskuratu gabe joan ez daitezen egingo dugu ahalegina.

Zer esanik ez, gure proiektuak lan handia eta lan asko eskatzen du. Eta ezin da epe laburrean burutu. Apurka-apurka egin beharrekotzat jotzen dugu. Helburu nagusira heltzeko atal bi edo aldi bi berezi behar dira: lehenengo, epe laburrean, eta bigarren, epe luzean aurrera eramane beharreko eginkizunak. Azken helburu nagusia hauxe litzateke: grekoz eta latinez idatzitako klasikoen lanak argitaratu, argitalpen elebidunetan, noski; hau da, latin-euskaraz eta greko-euskaraz. Baina hor ez da amaitzen lana: itzulpenok jakingarri eta ohargarri horniduak behar dira, irakurlea edukinaz ongi jabetzeko, edukin horrek duen testu-inguru historiko eta kulturalaz jabetu dadin era berean. Guzti honek gertakuntza luzea eta sakona eskatzen du: euskal hizkuntzaz ongi ikastitako langileak eta baita hizkuntza eta kultura klasikoetan egokiro prestatutako jakituntaldea ere. Gainera erakunde kulturek horretarako egin behar duten ahalegin eta antolamenduaz gain, erakunde politiko eta publikoek ere beren laguntza, diruz eta bestelako medioz eman behar dute, argitalpenok diru aldetik eskuragaitzak izan ez daitezen. Danok bait dakigu klasikoen argitalpen hauek, batetik, ez direla lar hedatuak izango, minoria batentzakoak baizik ez direla kaleratuko; eta bestetik, hizkuntza klasikoen, gure kasuan grekoaren, edizioak teknikaz garestiago izaten direla besteak baino. Honen ardura berezia daraman sail bat behar da jarri Erakundearen aldetik. Horretan aldaketa handia egin behar da gure zuzendarien buru-gogoetan. Esaterako, oraintsu hartutako erantzun baten arauera, oso urrun gaude egoera egoki hortatik. Gasteizen euskal kulturarekin lotuta dagoen pertsonaia batek, nire euskal lanetan ni adoretu guraz, esan zidan: bia, ekin lanean, laguntza izango duzu gure aldetik, zure lanak euskaraz badira, behintzat. Eta nik kezkatutik: baina nire lan asko ez doaz euskara hutsean, elebidunak izaten dira askotan, latin-greko edo eta gaztelania eta euskaraz. Ez, elebidunak ba dira zure lanok ez dukezu esandako laguntzarik.

Nik ez diot euskara hutsean eginiko lan ederrik ez dagoenik, ezta urrik eman ere; ezta euskara hutsean egindako lan batzu, nahiz eta punturengoak ez izan argitaratzea komeni ez denik; batez ere gure hizkuntzak bizi duen kinka larrian. Baina horrek ez luke baztertu behar elebidun lanik, kategoria handikorik ez, behintzat. Eman dezagun irakurgai arin-entretengarriak edo gurutzegrama-liburuxka bat euskara hutsean aurkezten ditudala. Ni neu konbentziduta nago beharrezkoak direla horrelako lanak gaurko irakurleoa euskararen alde jartzeko. Neronek ere asmatuak ditut guretzegrama pilo handiak asmo horrekin.

Baina Greziako filosofo edo Erromako literato bat euskaraz eta jatorrizko hizkuntzaz ematen badut argitara, honek mesede txikiagoa egingo al dio gure hizkuntzari, batez ere unibertsitatean eta goiko mailatan sartu nahi dugun egun hauetan? Eta espainolez edo ingelesez idatzitako poema eder batzu euskal itzulpenaz batera atera nahi izanez gero, baztergarriak al dira, elebidunak direlako? Jakina, itzulpenaren kalitatea begiratzen duen epaimahai bat egon dadila; baina liburu horri laguntza ukatu bazaio, izan bedi egindako itzulpenak edo hartutako originalak nahikoa kategoriarik ez duelako, eta ez elebiduna delako soilik.

Azal dezagun, beraz, epe luzean zein litzatekeen gure ametsa: gure politika eta irakaskuntza-nagusiak bide kontara etorriko direla onartuz gero, langileen aldetik hauxe izango litzateke betebeharra: talde egokiak egin, elkarren artean itzulgaiak banatzeko, itzulpen egokiak burutu eta elkarren laguntzaz orraztuak eta jakingarriz eta argigarriz honiduak. Editorial nazional antzeko bat behar litzateke, batez ere grekozko tipografiaz egin behar diren argitalpenak txukun egiteko eta euskal herrietan eta ikastetxeetan zabaltzeko. Eta zer esanik ez, erosle arruntak eskuratu gura balu holako lanen bat, garestiegi gerta ez dakion. Gobernuko Hezkuntza Sailak diru-laguntza bereziak eman behar litzateke horretarako. Gure hegoaldeko auzoek badute Consejo Superior de Investigaciones Cientificas delakoa horretaz arduratzen dena. Ez dakit behar bestean edo behar den eran. Baina hori erraza da zuzentzen.

Guzti honek hauxe esan nahi du: gure bibliotekak arlo hauetan ongi bai ongi horniduak eta benetan aberatsak behar litzateke, lana egiteko orduan urrutiegi joan gabe materialea aurkitzeko.

Gainera guzti honek beste hauxe ere eskatzen du: erakunde politikoek entzungor ezin badute egin, gure erakunde unibersitarioek ahalegin handiagoak egin behar litzateke, jendea prestatzeko eta lanak behar den moduan bideratzeko.

Badakit gure egunak ez direla aproposenak asmo hauek haizeratzeko: gure gizartea aurrerakuntzaren preminak bultzata, bestelako teknika-alderdietan murgildurik dagoela dirudi; baina latinezko esanaren aurauerara, oportet hoc facere et illud non omitttere. Esan nahi da: hau eta hau egin beharrean aurkitzen gara, bai, baina osterantzeko lanei bizkarra eman gabe.

Eta zer itzuli behar litzateke, orduan? Den dena, edizio kritiko eta dotoreetan. Idazle eta pentsalaririk handienetatik hasita, jakina. Eta goren go egileok gure arteratu ondoren, beste aintz, nahiz eta bigarren mailakoak irudi, literatura eta philosophia arloetan. Guzti honek bidea prestatuko luke, bidenabar, latin eta grekoaren hiztegi zabal eta sakonak gure hizkuntzaz egin ahal izateko, geroko mesedegarri.



Esan beharrik ere ez dago: behin itzulpen eta argitalpen elebidunak kaleratuz gero, argitaldarien aukera ederra izango lukete publiko handiarentzat euskara hutsezko argitalpenak egiteko. Edo, esaterako, adibiderik nabarmenena ipintzearen, antzerki lan modernoetarako laburpen edo moldatze-lan egokiak egiteko.

Eta aurrera joan baino lehen, epe hurbileko gauzetara jo baino arinago, bide batezko ohar bat.

Liburu guzti horietan, grekozkoetan batikbat, izen asko eta asko, leku eta pertsona-izenak aurkituko ditugu, gure belarrietarako arrotz egiten direnak. Gehienak eguneroko bizitzan inoiz aipatzen ez direnak. Liburuetako tradizioaren bidez soilik gureganatzen direnak. Eta gu orain aurkitzen gara lehenengo Aldiz haien aurrean, euskaraztu beharrean. Gainera gizartera erraz zabaltzen ez diren horietakoak izaki, bakoitzak berez bereziki jakin beharrekoak. Nola euskaraztuko ditugu? Hamalau irakurlek, liburuak eskuetan erabili-ahala, hamalau eratarata? Historia eta geografia bera ere azpikoz gora ipiniko genituzke elkar ulertu ez egiteko moduan. Grezia izen ezagunetik, greziar, grezitar, gerkar, grekar eta greko atera baditugu, zer egingo ote dugu izen bihurriagoak eta ebakitzeko zailagoak datozenean?

Hemen itzultzaile eta humanistek ez ezik, linguistek ere lan berezi dute, atzerriko izenok euskal erara jazteko, behin eta betiko.

Euskaltzaindiari dei bat: giza eta udal izendegiak antolatu dituen moduan, ezin ote du antxinate klasikoaren izenak, leku-pertsonenak, euskal erara atondu? Batzu erraz izango dira: orain gogoratzen zait nik Martial idazlearen epigramak argitaratu nituenean, Martial (sic) idatzi nuen eta *Zeruko Argia*-ko kritikariak nire ahalegintxo goretsi ondoren zera gaineratu zuen: Martzial behar lukeela. Eta egia da. Baina hori oso arrunta da gure artean. Zer egingo beste askoren aurrean, batez ere bakan eta guretzako arrotz agertzen direnekin? Pentsa Horatius handiaren izena, izen klasikoa, bost eratarata agertzen dela euskal itzulpenetan:

Horatius Horatio Oratio Horati Orati.

Eta Ha baino hizki gehiagoren auzia dadinean?

Berdin Mitologiako izenekin.

Marte guduaren jainkoa Marte esan izan dugu beti orain arte. Baina bizkaierazko martitzena Martis-en egunetik datorrela ikasi dutenez gero askok Marti idazten dute planeta aipatzeko. Asteko egunarena argi dago, genitivo dela, hau da, noren eguna den, Martis-ena, alegia. Baina planeta bera izendatzeko, ez ote arrazoizkoagoa beste kasu guztietan bezalaxe akusativotik ateratzea? Errege(m), lege(m), bike(m)... eta Marte(m)...

Bizkaiko baserritarrek aspaldi igarri zioten Martiko eguraldiari, hau da, martxo hilekoari, gaurko tramankulu eta tresneria ezagutu gabe, espaziuntzietan oinik ipini gabe. Eta nik ere bai, Martiko kukua askoetan entzuna dut, aldizka martitzenekoa, baina Martekorik ez, inoiz ez. Ala euskaraz, egoera bat deitoratzeko "beste kuku batek joko liguke" esaten denean, Martiko kukuagatik ez eta Martikoagatik esaten ote da?

Esanak esan, goazen, azkenik, epe hurbileko eginkizunetara.

Ia ezerezetik hasi beharrean aurkitzen gara: daukagun apurra argitaratu eta eguneratu, hori bai, besteek egindako lanik gal ez dadin. Eta bigarren, geu lanean hasi: egoera honetan nondik, baina? Ene ustez, autorerik jakingarrienak, gaur egunean ere unibertsitateetan eta institutuetan probetxurik gehien aterako geniekeen idazleak aukeratu behar. Lan bat edo beste aukeratu eta autore horrena ikasleei eskaini. Idazle ugaria balitz, esaterako Platon bat, edo San Agustin bat, bere idazkirik garrantzitsuena hartu eta enparau lanetatik antologia eder bat egin liteke, osoa euskaraztuko den eguna iritsi arte oharrez eta ondo hornidu, ikasleak inguru historiko-kulturalaz jabetu daitezten. Egindako itzulpenaz eta preminazko oharrez gain, sarrera orokor bat, behar den sakontasunez eta jakintzaz egiteko gai ez bada itzultzailea, eskatu beste bati (eta erdalduna bada berau, gero euskaraztuko dugu), edo eginda dauden atzeritarren ikerketa sakonetatik moldatu taiuzko hitzaurre edo sarrera bat, gure jakitunak euskaldundu edo gure euskaltzaleak jakitun egin arte.

Bigarren mailako idazleekin edo eskoletarako hain beharrezko ez diren idazle garrantzitsuekin antologia batzu egin litezke, gai eta gauza jakingarriak gure irakurle jakin-minei eskainiz.

Eta goratxoago San Agustin aipatu dudanez gero non ote daude gure elizgizonak? Eliz gurasoek eta idazleek ere gauza jakinbharrekoak idatzi dituzte erlijio kontuan, eta baita arlo profanoei dagozkien arazoei buruz ere. Frantziar adibidez, Paris-ko "Les Belles Lettres"-ek eskaintzen dizkigun paganoen edizioak ikusgarriak badira, ez dira atzean gelditzen Eliz Guraso eta Idazleen edizioak eta ikerketa lanak, esaterako, "Sources Chretiennes"-ek eskaintzen dizkigunak. Kilometro askotara gaudе; baina ibiltzen hasten ez bagara, azkenean kilometro askotara barik, beste mundu batean, isolaturik, aurkituko ditugu geure buruak.

Itzulpen lan hauek gure jakingura ase eta beteaz gainera, gure hizkuntza trebatu eta dotoretu egingo dute: gauzak sakonki eta zehatz-mehatz esatera behartuko gaituzte askotan, eta azalpenak egiteko orduan egokitasun eta dotorezia bat esijituko digute, bestela egingo ez genukeen. Geure hizkuntza landu eta geure adimenak ere zorroztu eta findu egingo genituzke.



Baina, zergatik hizkuntza originala alboan dutela argitara behar ote diren lanok? Argitaratzeko orduan, beharbada, idazle guztiekin ez da irizpide hau erabili beharko. Idazle bat, atseginezko zerbait idatzi badu, edo datu historiko jakingarriak dakartzalako aukeratu badugu, baliteke irakurleentzat euskal itzulpena aski izatea. Eta originala, latin edo grekoa, itzultzailearentzako bakarrik beharrezkoa izatea, itzulpena garantiaz eskaini ahal izateko.

Baina, badaude beste idazle batzu, batez ere autoritate gisa aipatze-koak, bai filosofian, bai tehologian eta pentsamendu munduan, alboan hizkuntza originala ezinbestezkoa dutenak. Zergatik? Eskolan edo idatzizko artikulu eta lanetan eztabaidarik sortuko balitz, originala begien aurrean behar da, itzulpenaz itsu-itsuan fidatzeko edo originala bera ardatz legez aipatzeko; pentsa askotan klasikoek filosofian edo teologian ekarritako berbak, inguruko erromantzeetan eta gure belarrietan, moteldu edo pizkat aldatu direla kasu askeotan. Horrelakoetan ezin gara abiatu eztabaidan eta ondorioak ateratzeko orduan originala bistatik galitzen badugu, originalak bakarrik duen ñabardura ahaztuz gero, alferrekoa litzatekeelako ondorengo dena.

Baina filosofiaren eta teologiaren ur handitan sartu gabe ere, badugu askotan hizkuntza originalen premina. Aipatzen den inguru kultural bat behar den bezala adieraziko badugu. Oraintsuko adibide bat ipiniko dut amaitu baino lehen:

Anakreonte-ren ondak, eta Anakreonte-ren izenean egindakoak, euskaraztu nituen orain gitxi dela. Grekoz eta euskaraz argitaratu ere bai. Eta ustegabeen, horra non aurkitzen dudan beste argitalpen dotoreago bat Anakreoni eskainitakoa. Hasi nintzen liburua aztertzen eta lehenengo zabaladu nuen orrialdean irakurtzen:

(Anakreonte-ren ustez)... hau esta beste, eta agurea jolas eta atsegine-tan ibili behar dela, zenbat eta zaharrago gehiago. Horixe zen handi-handika grekozko originalak zekarrena. Eta euskal itzulpen horrek honetara:

“Herioen alboak areagotzean”.

Kaleko irakurlea edo gelako ikaslea hasiko da behingoan gogoetan: baina zer nolako mentalitatea zuten, bada, greko haiek!

“Herioen”? Zenbat herio zeuden, ba, hainetzat?

“Alboak”? Baina zer zioten gizon haiek? Herioak alborik ba du? Hemendiko alboa, hil aurrekoa eta bestea, handikoa, hil ondorengo ote?

“Areagotzean”? Zer? Alboak areagotu egiten zaizkio heriotzeari? Triangelu batetik laukia egiten da azkenean, ala zer?

Hizkuntzaren aldetik, ederki esanda badago ere, edukinaren aldetik benetan, ulergaitza egiten zaigula esaldi hori:

Jo dezagun grekozko originalera eta arazoa argi eta garbi ikusiko dugu: (hitzez hitz itzultzen dut): “hauxe dakit: agureari jolas atseginak are gehiago dagozkio, Moira hurreratu ahala”.

Herito bat baizik ez; eta gainera heriotzea pertsonifikazio baten bidez nola aurkeztzen zuten antsinakoek ikasiko dugu: hau da, Latinoek Parken bidez adierazi nahi zutena grekoek Moira-ren bidez, pertsonaia horren bidez aditzera eman gura zuten. Orain edukina ulertu eta gainera antsinakoen sineskeren munduan sarturik kaletarra zerbait ikasia utziko dugu eta eskolan bada, pasarte hau aprobetxatuz, ikasleei antzinakoen mundu kultural horren berri emateko aukera ezin hobea izango dugu. Gainera gure testuek horixe eskatzen dute hizkuntza klasikoak ikasterakoan: hizkuntzak ikasi eta hizkuntza horiek bizi zuten giroa, politika, kultura eta pentsakeraren aldetik azaldu, gure ikasleen hezkuntza gano-razkoa izan dadin.

Hauxe izan da handi-handika aurkeztu nahi izan dudana asmoa edo ametsa. Ikusten duzuenez, 1545tik hona ez dugu bide handirik egin; oraindik ere lan honetan ari garenok, euskal alorrera goragoko ametsak ekarri zituenak bezalaxe, egoki da esan dezagun, apal eta itxaropentsu: *Debile principium melior sequatur fortuna.*

Nola?

Oraingoan, gure agintarien ta nagusien aldetik, “gomendiozko karta” honen erantzuna “emendiozko artha” izango al da! Hala biz.

Sugerentziak, ideiak eta lankidetzak onartzen da, denon artean lan hau hobeto eta arinago betetzeko.

Eskerrik asko.